

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
UNAI CUEVAS

Larreineta eta Zugaztieta (Bizkaia)

Meatzarien ordeez, txangozaleak



Zugaztieta, meataritzaren erdigune izandako eremuak, itxuraldaketa nabarmena jasan du azken hamarkadetan. XX. mendearen lehen erdialdean meatzarien pikotxek eta antzeko lanabesek lehentasuna bazuten ere, gaur egun mendizale eta ibiltarien amu bihurtu da.

Funikularra, gorabehera handiko historia

Larreinetako funikularrak 80 urte baino gehiago daramatza Trapagarango La Escontrilla eta Larreinetako auzoen arteko ibilbide maldatsua egiten. Hala ere, 1924ko irailaren 24an inauguratu zenean zuen erabilera eta gaur duena zeharo ezberdinak dira. Garai hartan, Trianoko mendietan bizi ziren meatzari familiak behar zutenaz –arrain, ogi eta abar– hornitzeko funtzioa bazuen ere, gaur egun bidaiariak eramaten ditu, beste edozein garraio publikok bezala. Sortu zenean, Larreinetako funikularra berezia zen, bestekin konparatuta. Haiek helburu turistikoak bilatzen zituzten batik bat, eta Larreinetakoak udalerrri bereko bi guneren arteko harremanak hobetzea bilatzen zuten.

1994. urteaz geroztik Eusko Trenbideak elkarte publikoak kudeatzen du funikularra. Urte hartan eraberritu zuten, zurezko kabina zaharren ordez gaur egungoak ipiniz. Lan hori Beasaingo Irizar enpresak burutu zuen.

Datu batzuk:

- ✓ Bulnesko Narankokoa egin zen arte –2000. urtean–, Espainiako estatuko funikularriketan Larreinetakoak egiten zuen ibilbiderik luzeena: 1.179 metro. Bulnesko Narankokoa, berriz, 2.200 metro betetzen ditu.
- ✓ Segundoko 2,2 metroko abiadura izanik hamar minutuan gainditzen du 342 metroko desnibela. Punturik aldapatsuenan, malda %35,9koa da.
- ✓ Beste funikularrekin alderatuz zabalagoa da. Horrek egonkortasun handiagoa ematen zion ibilgailuak eta salgaiak eramaten ziren garaian.
- ✓ 70 lagun eraman ditzake, horietako 32 eserita.

Ordutegia eta prezioa:

- ✓ Astelehenetik larunbatera lehenbiziko bidaia goizaldeko 4:50ean egiten du. Hurrengoa 5:30ean ateratzen da eta



hortik aurrera ordu erdiro aritzen da etengabe, 23:00ak bitartean. Igande eta jai egunetan, berriz, azken bidaia ordu berean egiten badu ere lehenengoa 8:00etan abiatzen da. Dena den, jende asko edo talde handiren bat badago bidaia bereziak ere egiten ditu.

- ✓ Joan-etorriko txartelak 1'50 euro balio du (0,30 zentimo merkeago Creditransarekin).

Orain dela mende erdi bertan lanean ari ziren meatzarien tresnen kolpeak ez dira entzuten. Euren bizitzak kontsumitzen zituzten lan-tegiak ez daude martxan jada. Udalerriko behe eta goiko aldean artean borborrean zeuden geldiezin-zeko harremana eta mugimendua ez dira nabarmentzen. Hori bai, oraindik ere meatzaritzaren urrezko garaietako xarmak ez du Trianoko ingurune honetatik alde egin. Bertan jarraitzen du. Tematsu. Betiko.

Larreineta auzotik Zugaztietarako bidea hartu eta ezkerrean ikusten diren hormek iragana biltzen dute, iruditzen. Meatzetako langileak, trena edo burdina garraiatzen zen gurditxo antzeman daitezke. Orduan, aurrera so egin eta konturatzen gara non gauden. Edo hobe esanda, irudi horietako protagonistak non zebiltzan.

Egun, berdegune zabal batekin egiten dugu topo. Aurreko bi mendeetako meatze ustiakuntzek paisaia oraindik zeresana badute ere, lakuek eta gune lasaiek protagonismoa kendu diete. Parkotxa, Ustion edo Las Carmenes izeneko meazulo handiek garai haietako hainbat meatzaren izena bereganatu dute. Iragana eta orainaldia bat eginik. Biak uztartzeko, Peñas Negraseko Ingurumen Interpretazio Zentrotik txangoak antolatzen dira. Paisaia berezi honen eta meatzaritzaren historia hobeto ezagutzeko aukera paregabea.

Trianoko mendietan burdin meatzaritzaren loraldia 1880. urtetik aurrera eman zen. Hasierako prozedura garatu gabeek ustiakuntzaren mekanizazioari eta mearen garraioari leku utzi zieten. Horrekin batera, kanpoko kapitala eta euskaldun

sustatzaileak batu eta sekulako garapen ekonomikoaren eraginez Bizkaiko Labe Garaiak sortu ziren 1902an. Gainbehera ere etorri zen, eta beraren ondorioz burdin meazulo espertazioa 1963. urtean bukatu zen. Orain dela 25 urte itxi zituzten ingurune honetako azken meatzeak. Orconera enpresarenak ziren guztiak, eta 1986. urtera arte lanean aritu zen azken ustiakuntza gunea –garbigune bat– ere enpresa berarena izandakoa da. Halaber, 1993an esan behar izan zion agur bere zereginari meatzekin zerikusia zuen azkeneko ustiakuntzak: Bodovalleko meazulo erraldoiak, Gallartatik hurbil.

Gaur, burdin meazuloa ateratzen zen lekuetan arrantza egiten da eta hamahiru hegazti eta zazpi ugaztun mota desberdin bizi dira –guztiak



Ezkerrean, "etxe gorria", meatzarien etxeen ikono bihurtutako eraikina. Ondoan, Zugaztietako kale bat, eta goian, herri osoaren ikuspegia, atzean Trianoko mendiak dituela.

desagertzeko arriskuan dauden espezieen euskal katalogoan jaso dituzte—. Horiakin batera, zaldiak, ahuntzak edo behiak ikustea ez da batere harrizkoa izaten. Eredu honetan, naturak urte askoan galdutakoa berreskuratu du. Jende askok bainua hartzeko tokia ere badela uste du, baina aintzira hauek nahiko arriskuak dira igerian aritzeko.

Eraikin adierazgarriak

Larreinetatik ordu laurdeneko ibilalditoxa egin ostean, Zugaztietara helduko gara. Oinei astindu txikia eman nahi ez dionarentzat, autobusa da aukerarik egokiena: funikularretik atera orduko, aurrez aurre batekin egingo du topo.

Aldaketa ugari jasan arren, Zugaztietak meatzari herrixken egiturari

etsi dio. Etxeak ilara ezberdinetan banatzen dira, gehienek bi pisutako altuera dutela. Horien artean, kale txiki estuak, aldapa eta guzti duen plaza, eliza eta hainbat taberna. Herrixkarekin bat sortutako "etxe gorria" aipatzekoa da ere, La Magdalena plaza ondoan. Zurez eginiko eraikin horrek ehundik gora urteetan izan diren aldaketa guzti aurre egin

Horman egindako irudiak (ezkerrean) meatzarien bizimodua erakusten du. Gaur egun askoz lasaiagoa da Triano ingurua, eskumako argazkian ageri den eskulturak adierazi nahi digunez.





Gida praktikoa

NOLA HELDU:

✓ **Autoz:** Bilbotik Kantabriara doan autobian Portugalete-Ortuella jartzen duen irteera hartu. Handik kilometro eta erdira Trapagaran dago. Bertatik abiatuta, sei kilometroko igoera egin behar da Zugaztietara heltzeko.

✓ **Autobusez:** Bizkaibuseko hiru ibilbidek dute geltokia Trapagaranen:

-A3144: Bilbo-Barakaldo.

-A3336: Bilbo-Muskiz (Ortuellatik).

-A3337: Bilbo-Muskiz (N-634tik).

INGURUAN ZER BISITATU:

✓ Ortuellako Peñas Negraseko Ingu-rumen Interpretazioko Zentroa (94-633 80 97).

✓ Meataritzaren Museoa, Gallartan (94-636 36 82).

✓ Muskizeko El Pobaleko Burdinola (629-271 516).

NON BAZKALDU:

✓ Casa Sabina (94-660 40 31).

✓ Maite jatetxea (94-660 40 20).

✓ Zamarripa (94-660 41 62).

✓ Zumaztietara (94-660 40 42).

die meatzarien etheen ikono bihurtuz. Bizkaian era horretako gutxi batzuk besterik ezin dira aurkitu, denak inguru honetan. Kantabria eta Asturiaseko herri gutxi batzuetan baino ezin daitezke aurkitu antzekoak. Aipatu beharra dago, bidenabar, Zugaztietako hirigunea multzo monumentalak izendatua izan zela 2003. urtean.

Aski ezagunak dira Zugaztietako tabernak. Orain dela urte batzuk gehiago ziren orain baino, baina oraindik aurkitu daitezke hainbat, herria txikia izan arren. Jakirik preziatuena indabak dira, sakramentu ugariz hornitutako lapikoko paregabea. Koadrila ugari hurbiltzen dira, negu partean batez ere, bertako sukaldarien trebezia neurtzeko asmoz. Eta gehienak, denak ez badira, sabela bapo-bapo beteta ateratzen dira laster bueltatzeko esperantzarekin. Bertako espeziali-

tatea dastatuz gero, errepikatze gogo sortzen da.

Indabekin batera, aski ezaguna da bertako euskal pastela, hainbat azokatan saritutakoa. "Egurrezko ogia" deritzona eta momentuan egindako gazta freskoa probatu edota erosi gabe ere ezin daitezke herritik alde egin.

Ibilbideak

Txangozale eta mendizaleentzako eremu bihurtu den heinean, Zugaztietara eta Trianoko ingurune honetatik hainbat ibilbide dago. Aipagarrienak, Mendibil eta Bitarraxora eramaten gaituena, lakuen inguruetatik egiten dena eta Peñas Negraseko inguruetatik pasatzen dena. Guztiak dira erraz egitekoak, eta behar bezala adierazita daude; pare bat ordu baino gutxiago behar izaten da horretarako. Aukera ona hasi berri diren mendizaleentzat. Ibilbide guztien berri-

lor daitezke Peñas Negras-eko Ingu-rumenaren Interpretazio Zentroan, Zugaztietatik kilometro batera-edo, Muskizerantz doan baso-errepidearen ertzean.

Ibilbide horietako leku desberdinetatik Ezkerraldeko hainbat herri ikus daitezke. Barakaldo, Sestao eta Santurtzi begirada batez erraz menperatzen dira, aspaldiko hartu-emanak berriro ere pil-pilean egongo bailiran. Azken finean, industria-garapenaren berotasunean sortutakoak dira hiri horiek, eta asko sor diote meataritzari.

Era berean, Trianoko mendilerroa osatzen duten gailurretara igo daitezke. Esaterako, lakuetatik hurbil dauden Bitarraxora (519 metro) eta "Piruli" izeneko antenaren antzekoa duen Mendibilera (562 metro). Lan handixeagoa eskatuko dute herrixkaren goiko aldetik ikusten diren Ganerane (822), Pico Menor-ek (728) eta Pico Mayor-ek (747). ■

20, 30, 35, 40... eta 50 urtera arteko hipotekak. Tasazio-balioaren %100eraino eta abalik gabe.

zeure erara
bbk
hipotekak

etxetik botako zaituzte